



ELAk salatzen du Gipuzkoako Osasun Mentala empresa pribatuen esku dagoela

Zerbitzu honetan diharduten Gipuzkoako langile guztien %85 empresa pribatuan daude, horietatik gehienak Arrasateko Aita Mennin

EAeko hiru herrialdeetako Gipuzkoa da osasun mentaleko ospitale publikorik ez duen bakarra

Osasun mentala negozio bihurtu da Gipuzkoan. Hala erakusten du ELAk osatutako txostenak. Izan ere, Osakidetzak kontzertazioak ditu Aita Menni, San Juan de Dios ospitalea, Domusvi-Sanatorio Usurbil empresa pribatuekin... Nabarmentzekoa da Gipuzkoako sarean dauden langileen %54a Aita Menniren eskuetan dagoela. Ondorioz, Gipuzkoa da erdi eta epe lutzerako egonaldiak dituzten EAeko osasun mentaleko ospitale publikorik ez duen lurralte bakarra.

Hori gutxi ez, eta azken hamarkadan aurrekontua gero eta murritzagoa da. Osakidetzak arlo horretara bideratutako inbertsioa %10 gutxitu du, eta, beraz, profesionalak eta inbertsioa falta nabaria da. Gipuzkoako Osasun Mentaleko zerbitzua Osakidetzak eskeintzen duen lehen arreta eta pribatizatuta dagoen egonaldi ertain eta luzeak dituen ospitaleetaz osatzen da. Horrek esplikatzen du aurrekontua kontuan hartuz gero, Arabako aurrekontuaren erdia eta Bizkaikoaren % 15 baino ez izatea Gipuzkoak. Hortaz, pribatizatuta eta multinazionalen esku dauden ospitaleek eskaintzen dute buru osasunari lotutako ospitaleratze zerbitzua, kontrol publikotik kanpo.

Guztira EAeko Osasun Mentalaren sarean 111 milioi euroko aurrekontua dago eta gutxien duena Gipuzkoa da, 11 milioi euroko aurrekontuarekin. Ez dago Osasun Mentaleko ospitalerik eta 166 langile publikoak daude.

Gainontzeko lurraldeekin alderatuz gero, Bizkaia da sare publikorik handiena duena. Bertan, 74 milioi euroko aurrekontua dago ezarrita, 3 ospitale publiko daude (342 ohe) eta guztira 952 langile. Arabako sarea 384 langilek osatzen dute, ospitale publiko bat dago (175 ohe ditu) eta 26 milioi euroko aurrekontua dago.

Gipuzkoan pribatizatutako zerbitzuak dituzten ospitaleak/enpresak

	ESKEINTZEN DUTEN ZERBITZUA	LANGILE KOPURUA	JABETZA
Aita Menni Arrasate	Erdi eta epe luzerako egonaldiak	611	Hermanas hospitalarias de Sagrado Corazon. Zentruak Europa, Hegoamerika, Afrika eta Asian
Domus VI-Usurbil	Erdi epeko egonaldiak	65	ICG Europe Fund VI (No. 1) Limited Partnership inbertsio funtsa, Jersey irlatan tributatzen du
San Juan de Dios Arrasate	Epe luzeko egonaldiak	184	San Juan de Dios-74 zentru estatu osoan
San Juan de Dios Donostia	Erdi epeko egonaldiak	95	San Juan de Dios-74 zentru estatu osoan
GUZTIRA		955	

Iturria: ELA

Horrek guztiak lan baldintzen okertzea ekarri du, pandemiak are gehiago areagotuta. Aita Menniko langileen baldintzak horren adibide dira. Esaterako, Arrasateko ospitalean dauden pazienteen patologien artean eskizofrenia, psikosia eta kontsumo eta adikzioei lotutakoak daude gehienbat. Bada, hain oinarrizkoa den zerbitzu horretan, lan baldintzek okerrera egin dute azken urteotan, eta langileek gaur 31.greba eguna duten arren, enpresak ez du inolako borondaterik hitzarmena hobetzeko.

Nahiz eta Aita Menniko balantze ekonomikoak erakusten duen, ELAk aztertu ondoren, egoera finantzarioa ezinhobea dela: 2017tik 2020 bitartean 20 milioiko inbertsioak egin ditu eta inbertsioak areagotzeko plana aurkeztu du duela gutxi publikoki, 30 milioi eurotara igota. DomusVI taldearen kasuan, 22,3 milioi euroko irabazi gordinak izan zituen 2018an.

Behar eta atentzio berezia berezia duten pazienteak direla kontuan hartuta, egoera gogorrak bizi behar izaten dituzte langileek. Bertako langile batek ELAri adierazi dionez, Ospitaleko egonaldi luzeko unitate batean, paziente bat aulkia botatzen hasi zen duela urtebete erizain-laguntzaileei. Une horretan, hiru langile zeuden unitatean eta egoera horri aurre egiteko, 17 profesional behar izan zituzten (protokoloek diote gutxienez 5 pertsona behar direla egoera hauei erantzuteko).

Kolpeak eta agresio fisikoak oso ohikoak dira zentru hauetan. Langileek euren osasuna arriskuan jartzen dute hainbatetan, eta enpresak lan segurtasuna bermatu beharrean lan kargak handitu eta murrizketa gehiago aplikatu ditu.

Baliabideak eta baldintzak

2020ko Osasun Mentaleko giza eskubideen egoerari buruzko txostenak dio inbertsio eta baliabide hornidura gehiago behar izango direla etorkizuneko osasun behar guztiei erantzuteko, eta horrek esan nahi du psikiatriako, psikologiako eta erizaintzako adarretan osasun mentaleko profesional espezialisten ratioa handitu beharko dela, zerbitzu duina eman nahi bada.

Osasunaren Mundu Erakundeak dio osasun mentala munduko lehenengo gaixotasuna izango dela 2030.urtean eta %2a bakarrik destinatzen dela horretara. Estatu mailan, berriz, 100.000 biztanleko sei psikologo omen daude, Europar Batasuneko media baino hiru gutxiago eta ospital publikoen %60ak bakarrik du atentzio psikologikoa.

Euskal Herrira etorrita ere, gero eta gehiago dira Osasun Mentalaren esparruan inbertsio eta baliabide gehiago eskatzen duten eragile sozial, politiko eta senideen elkarreka. Pandemiaren eraginez, asko areagotu dira buru gaixotasunak. Pasa den urtean suizidioak %27 igo ziren eta osasun mentaleko kontsultak %13a. Baino lehen esan dugun modura, Osakidetzak azken hamar urteotan Osasun Mentalea zuzendutako aurrekontua %10 jeitsi da.

Aita Menni ospitalean argi ikusten da pertsonal faltaren arazoa. Adibidez, Unitate psikogeriatricoan guztiz dependienteak diren 44 erabiltzaile daude (gurpildun aulkian daude eta jateko laguntza behar dute). Arratsaldeko txandan 3 erizain laguntzaile bakarrik daude, eta erizain bakarra dago unitate hori eta beste bi zaintzen.

Hau guztia aztertu ondoren, ELAk honakoa eskatzen dio Osasun saila, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Osasun Mentaleko zerbitzuak kudeatzen dituzten gainerako instituzioei:

- Osasun Mentaleko sarea indartu eta aurrekontuak areagotzea, buruko gaixotasunak lehenetsiz eta pandemiaren ondorioz suertatu diren egoerei erantzuteko errekursoak ezarriz.
- Guztionak diren zerbitzu publikoekin empresa pribatuek negozioa egiteari utzi eta Osasun Mentaleko pribatizatutako ospitaleak publifikatzea bertan gaur dauden langileen subrogazioa bermatuz.
- Gaur empresa pribatuek zerbitzua ematen duten zentroetan ardura hartzea, eta bereziki 31 greba egun egin eta gero, Arrasateko Aita Menniko lan gatazkan esku hartzea, bertako langileen lan baldintzak Osakidetzako lan baldintzen homologazio baterantz bultzatzuz.

Euskal Herria, 2022ko ekainaren 2an.



ELA denuncia que la Salud Mental de Gipuzkoa está en manos de empresas privadas

El 85% del personal del sector se encuentran en la empresa privada, la mayoría de ellos en Aita Menni de Arrasate

Gipuzkoa es el único territorio de la CAPV que carece de hospital público de Salud Mental

La salud mental se ha convertido en un negocio en Gipuzkoa. Así lo demuestra el informe elaborado por ELA. Y es que Osakidetza tiene conciertos con las empresas privadas Aita Menni, Hospital San Juan de Dios, Domusvi-Sanatorio Usurbil... Cabe destacar que el 54% del personal de la red de Gipuzkoa está en manos de Aita Menni. En consecuencia, Gipuzkoa es el único territorio que carece de hospitales públicos de salud mental de la CAPV para estancias de media y larga duración.

Por si fuera poco, en la última década el presupuesto es cada vez más reducido. Osakidetza ha reducido su inversión en este ámbito en un 10%, por lo que faltan profesionales e inversión. El servicio de salud mental de Gipuzkoa se compone del servicio de atención primaria que presta Osakidetza y de los hospitales de media y larga estancia que está privatizados. Esto explica que Gipuzkoa sólo cuente con la mitad del presupuesto de Araba y el 15% del de Bizkaia. Por tanto, son los hospitales privatizados y en manos de multinacionales los que ofrecen un servicio de hospitalización ligado a la salud mental, fuera del control público.

En total, en la red de Salud Mental de la CAPV hay un presupuesto de 111 millones de euros y el territorio que menos presupuesta es Gipuzkoa, con 11 millones de euros. No hay hospitales públicos de Salud Mental y hay 166 empleados públicos.

En comparación con el resto de territorios, Bizkaia es el que tiene la mayor red pública, con un presupuesto de 74 millones de euros, 3 hospitales públicos (342 camas) y un total de 952 trabajadores/as. La red alavesa está compuesta por una plantilla de 384 personas, un hospital público con 175 camas y un presupuesto de 26 millones de euros.

Empresas/Hospitales que gestionan los servicios privatizados en Gipuzkoa

	SERVICIO	PLANTILLA	PROPIETARIO
Aita Menni Arrasate	Estancias medias y largas	611	Hermanas hospitalarias de Sagrado Corazón. Centros en Europa, América del Sur, África y Asia
Domus VI-Usurbil	Estancias medias	65	ICG Europe Fund VI (No. 1) Fondo de inversión Limited Partnership (tributa en la isla de Jersey)
San Juan de Dios Arrasate	Estancias largas	184	San Juan de Dios-74 centros en todo el Estado
San Juan de Dios Donostia	Estancias medias	95	San Juan de Dios-74 centro en todo el Estado
TOTAL		955	

Fuente: ELA

Todo ello ha supuesto un empeoramiento de las condiciones laborales, agravado aún más por la pandemia. Las condiciones del personal del Aita Menni es un ejemplo de ello. Por ejemplo, entre las patologías de los y las pacientes ingresados del hospital de Arrasate se encuentran principalmente las relacionadas con esquizofrenia, psicosis y consumos y adicciones. Pues bien, en este servicio tan básico, las condiciones laborales han empeorado en los últimos años, y aunque la plantilla vive hoy su 31^a jornada de huelga, la empresa no tiene ninguna voluntad de mejorar el convenio.

Sin embargo, el balance económico de Aita Menni demuestra, tras ser analizado por ELA, que la situación financiera es impecable: ha realizado inversiones de 20 millones entre 2017 y 2020 y ha presentado públicamente un plan para incrementar las inversiones, elevándolas a 30 millones de euros. En el caso del grupo Domus VI, obtuvo unos beneficios brutos de 22,3 millones en 2018.

Teniendo en cuenta que se trata de pacientes con especial necesidad y atención, el personal se ve obligado a vivir situaciones duras. Según ha comprobado ELA, en una unidad de larga estancia del Hospital, un paciente comenzó a tirar sillas a las auxiliares de enfermería hace un año. En ese momento, había tres trabajadores en la unidad y para hacer frente a esta situación se necesitaron 17 profesionales (los protocolos dicen que se necesitan al menos 5 personas para responder a estas situaciones).

Los golpes y las agresiones físicas son muy frecuentes en estos centros. El personal pone en peligro su salud frecuentemente y la empresa en lugar de garantizar la seguridad laboral ha aumentado las cargas de trabajo y aplicado más restricciones.

Recursos y condiciones

El informe sobre la situación en Salud Mental (2020) señala que se necesitarán más inversiones y dotaciones de recursos para atender todas las necesidades sanitarias futuras, lo que implica aumentar la ratio de profesionales especialistas en salud mental en las ramas de psiquiatría, psicología y enfermería si se quiere prestar un servicio digno.

La Organización Mundial de la Salud afirma que la salud mental será la primera enfermedad del mundo en 2030 y que sólo el 2% de los recursos se destinan a ello. A nivel estatal hay seis

profesionales de psicología por cada 100.000 habitantes, tres menos que la media de la Unión Europea y sólo el 60% de los hospitales públicos tiene atención psicológica.

Cada vez son más las asociaciones de agentes sociales, políticos y familiares que demandan más inversión y recursos en el ámbito de la Salud Mental. La pandemia ha provocado un fuerte aumento de las enfermedades mentales. El año pasado, los suicidios aumentaron un 27% y las consultas de salud mental un 13%. Pero como decíamos anteriormente, en los últimos diez años el presupuesto destinado por Osakidetza a Salud Mental se ha reducido en un 10%.

En el hospital Aita Menni se ve claramente el problema de la falta de personal. Por ejemplo, en la Unidad Psicogeriatrica hay 44 usuarios totalmente dependientes (en silla de ruedas y que necesitan ayuda para comer). En el turno de tarde sólo hay 3 auxiliares de enfermería y sólo hay una enfermera cuidando de esta unidad y de otras dos.

Una vez analizado todo esto, ELA solicita al resto de instituciones que gestionan el Departamento de Salud, la Diputación Foral de Gipuzkoa y los servicios de Salud Mental:

- Reforzar la red de Salud Mental e incrementar los presupuestos, priorizando las enfermedades mentales y estableciendo recursos para dar respuesta a las situaciones derivadas de la pandemia.
- Que las empresas privadas dejen de hacer negocio con servicios públicos que son de todos y publiquen los hospitales privatizados de Salud Mental garantizando la subrogación del personal que hoy se encuentra en ellos.
- Hacerse cargo de los centros donde hoy prestan servicio las empresas privadas, y especialmente después de 31 días de huelga, intervenir en el conflicto laboral de Aita Menni en Arrasate, impulsando las condiciones laborales de sus trabajadores hacia una homologación de las condiciones laborales de Osakidetza.

Euskal Herria, 2 de junio de 2022.